

AZTERKETARAKO JARRAIBIDEAK

1. Erantzun aurretik, irakurri arretaz atal bakoitza.

2. Azterketak lau zati ditu:

o 1. zatia: Testu historiko baten azterketa (3 puntu). Erantzun bi galderei, testuko informazioa eta zure ezagutzak erabiliz.

o 2. zatia: Irudi historiko baten analisisia (3 puntu). Adierazitako bi galderei modu arrazoituan erantzun.

o 3. zatia: Kronologikoki ordenatu proposatutako hamar gertaerak (2 puntu).

o 4. zatia: Eskaintzen diren bost kontzeptuetatik bi definitu (2 puntu).

3. Letra argiz eta modu egituratuan erantzun.

4. Bereziki baloratuko dira zehaztasun historikoa, hiztegi espezifikokoaren erabilera egokia, azalpen-argitasuna eta gertaerak eta prozesuak erlazionatzeko gaitasuna.

5. Debekatuta dago gailu elektronikoak edota kontsulta-materialak erabiltzea.

6. Azterketaren iraupena: 60 minutu.

1. Testu historiko baten azterketa (3 puntu)

Erresuma Batuko eta Frantziako gobernuek solemne eta publikoki adierazi dute gerra bat ezartzen bazaie, askatasuna defendatzeko eta bakea berrezartzeko bakarrik jardungo dutela. Ez dute abantaila materialik edo lurralde-handitzerik bilatzen, eta ez diote Alemaniari bidegabea den bakerik inposatu nahi.

Ahalegin guztiak egin dituzte konponbide baketsu bat lortzeko, herrien eskubideak eta hartutako konpromisoak errespetatuz. Hala ere, Poloniaren aurkako erasoak eta Alemaniako indarrek erretiratzeari uko egin izanak agerian utzi dute Alemaniako gobernuak indarra erabiltzea erabaki duela.

Egindako ohartarazpen eta jakinarazpenei erantzun egokirik eman ez zaienez, Erresuma Batuko eta Frantziako gobernuek uste dute une honetatik aurrera gerra-egoera bat dagoela Alemaniarekin.

Frantziak eta Erresuma Batuak Alemaniako Gobernuari egindako adierazpen bateratua (1939ko irailaren 3a)

Galderak:

- a) Zein gertakarik eragin zuen testuan aipatutako adierazpena eta zeintzuk izan ziren berehalako nazioarteko ondorioak? (1,5 p.)
- b) Aukeratu herrialde bakar bat (Frantzia ala Erresuma Batua) eta deskribatu nola garatu zen gerra eta zein izan zen haren azken emaitza. (1,5 p.)

2. Irudi historiko baten analisisa (3 puntu)



1989ko azaroa eta abendua bitartean hartutako irudia.

Galderak:

- Azaldu zer gertaera historiko islatzen duen argazkiak eta zer faktore politiko eta sozialek eragin zuten irudian agertzen den egoera. (1,5 p.)
- Aztertu argazkian irudikatutako gertaerak izan zituen ondorio historikoak, bai Alemaniarentzat, bai Europa osoarentzat. (1,5 p.)

3. Ordenatu kronologikoki gertakizun hauek (2 puntu)

(Kokatu 1etik 10era zaharretik berrienera)

- Errusiar Inperioaren erorketa eta Boltxebikeen Iraultza
- Petrolioaren krisia
- Videla jeneralaren estatu-kolpea Argentinan.
- SESBen desintegrazioa eta EBEren (Estatu Burujabeen Erkidegoa) sorrera
- NBE sortzea

- Udaberri Arabiarra
- Gizakia Ilargira iristea
- Aljeriaren independentzia
- Lehen Mundu Gerraren hasiera
- Depresio Handia

4. Hurrengo bost kontzeptuetatik bi definitu (2 puntu)

- Nazioen Elkartea (NE) edo Nazioen Liga
- Apartheida
- Marshall Plana
- 1957ko Erromako Ituna
- Perestroika